

BIZKAIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ALORREKO ADIERAZLEAK EUSKAL HERRIKO INGURUNEAN

Egileak:



Babeslea:



Bizkaiko Foru
Aldundia
Berrikuntza eta Ekonomi
Sustapen Saila

Diputación Foral
de Bizkaia
Departamento de Innovación
y Promoción Económica

Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ekonomia Sutapen Sailak *Bultzatu programa* jarri du abian (2005erako *Bultzatu programa* arautu duen maiatzaren 24ko 88/2005 FORU DEKRETUaren bidez).

Programa horren xedea "*Toki Berrikuntza bultzatzea, Bizkaiaren kalitate-irudia eta Bizkaiaren arlokako eta lurralde garapena modu iraunkor eta bateratuan bultzatzeko jarduerak egiteko laguntzak ematea da*".

Ekimen horrekin bat eginez, Bizkaiko ekonomia eta gizarte alorreko izaera estatistikozko adierazleak eskaintzeko proiektua aurkeztu zuen GAINDEGIAK, betiere, adierazle horiek Euskal Herriko ingurunean kokatuz. Zehazki, proiektuak bi helburu izan ditu:

- A. Bizkaiko enpresak lehiakorrago izan daitezen ahalbidetzea, kalitatezko eta informazio estatistikoa eredugarria eskainiz.
- B. Euskal Herriko gainerako lurraldeetan (eta mundu zabalean) Bizkaiari buruzko informazioa hedatzearen bidez, Bizkaiaren irudia hobetzea eta herrialdearen ereduizko izaera hobetzea.

Helburu horiek bete ahal izateko, ekonomiaren ikuspegitik ezinbestekoa den estatistika eraikinaren zimenduak jartzen eman dugu 2005. urtea. Egindako lanak bi norabide izan ditu:

- Batetik, oinarritzko informazio estatistikoaren bateragarritasuna zehaztu dugu: informazio iturriak ezagutu, homogeneizatzeko aukerak aztertu.... Azterketak izandako emaitzetatik, informazio estatistikoa behin-behineko hiru taldetan sailkatu dugu: bateragarri egin ditugunak, zalantzarik (kontzeptuen definizioan, datuak biltzeko erabilitako prozeduretan....) eta oraingoz bateratu ezin direnak.
- Eta bestetik, datuak lantzen hasi gara. Bateragarri egin dugun informazioa bildu dugu eta Euskal Herriko indizeak atera ditugu. Eskuarrean dituzuen orrietan, bildu ditugun datuen lehen emaitzak aurkezten ditugu bi euskarritan: bata, zenbait datu aipagarriak biltzen dituen txosten laburra da, *Bizkaia, Euskal Herriko eta Europako Batasuneko testuinguruan* izenekoa; eta bestea, Bizkaiko eskualdeetako eta udalerrietako datuak biltzen dituen eranskina.

Beraz, lan luze eta neketsu baten ondoren, lehen aldiz Euskal Herri osoko informazio estatistikoa emateko moduan gaude. Dena dela, aurtengo lana operazio estatistiko berrietarako oinarria jartzea izan da (demografia, populazioa...), eta horri esker, datozen hilabeteetan (2006. urteko egitasmoa) adierazle sozio-ekonomikoak emateko moduan izango gara. Hori guztia Bizkaiko eragile ekonomiko eta instituzionalek bere inguru hurbilarekin (Euskal Herria) dituzten harremanetan eragiteko oinarri indartsu bat osatzera etorriko da

***BIZKAIA,
EUSKAL HERRIKO ETA
EUROPAKO BATASUNEKO
TESTUINGURUAN***

1	
A - DEMOGRAFIA	2
1. Biztanleak eta dentsitatea: Euskal Herriko biztanleen herenak Bizkaian bizi dira	2
2. Biztanleriaren adin osaketa. Bizkaiaren ageriko <i>zahartzea</i>	4
B. IKASKETA MAILA.....	7
3. Biztanleriaren ikasketa maila. Proportzioan, bizkaitarrek dituzte, lapurtarrekin batera, hirugarren mailako ikasketa gehien	7
C . FAMILIA EGITURA	9
4. Biztanleak zein tamainatako etxeetan bizi diren. Bizkaiko biztanle gehienak lau kideko etxeetan bizi dira: % 31,3.....	9
5. Familia egitura. Bizkaiko 10 familiatatik 4 familia posnuklearrak dira	12
D. SEKTORE EKONOMIKOAK	19
6. Enpresak. Bizkaiko enpresa egituraren %89,1 5 langile baino gutxiagoko enpresek osatzen dute.....	19
7. Biztanleria enplegatua. Bizkaian 10 okupatutatik 6k baino gehiagok zerbitzuen sektorean dihardute.....	21
* TXOSTENEAN ERABILTZEN DIREN DATUAK BILTZEN DITUZTEN TAULEN ERANSKINA	24


A - DEMOGRAFIA

1. Biztanleak eta dentsitatea: Euskal Herriko biztanleen herenak Bizkaian bizi dira

Euskal Herriko zazpi herrialdeetan hiru milioi biztanle inguru bizi dira, eta horietatik herenak baino gehiago, 1.123.002 hain zuzen, Bizkaian. Euskal herrialdeetatik, Bizkaiak du biztanle gehien.

Datu hori osatzeko, lagungarria da herrialdearen neurria kontuan hartzea: Bizkaiak euskal lurraldearen %10,7 betetzen du, eta biztanleria osoaren %38,7.

1. Dentsitatea, herrialdeka. Euskal Herria, 2001 (%)



Iturria: www.datutalaia.net. Biztanleria zentsuak eta Izendegia (EUSTAT, INE, INSEE).


***Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako azalera guk kalkulatu da (ikusi www.datutalaia.net Metodologia Oharrak).

Agerikoa da, Bizkaia, biztanle kopuru handiena duen herrialdea izateaz gain, dentsitate handiena duena ere badela; kilometro koadro bakoitzean 502,1 lagun bizi dira. Kopuru handia da kontuan izaten badugu Euskal Herriko batez besteko dentsitatea (138,6) halako lau dela. Oro har, populatuagoak daude kostaldeko hiru probintziak (Bizkaia, Gipuzkoa eta Lapurdi) barnealdeko laurak baino.

Azpimarragarria da Zuberoak eta Nafarroa Behereak zein dentsitate txikiak dituzten, batez ere, Bizkaikoarekin alderatuz gero. Datu bitxi gisa, honako hau emango dugu: Bizkaiko biztanleriaren dentsitatea Zuberokoarena halako 26 da.

Inguru superpolutatua dugu, beraz, Bizkaia. Baieztapen hori are garbiago ikusten da Europako testuinguruan. Izan ere, jarraian datorren taulan adierazten denez, Europako Batasunean batez besteko dentsitatea 113,2 biztanlekoa da. Azterketa estatuka eginez, Euskal Herria 8. lekuan dago dentsitatearen arabera; eta hurrenkera horretan bertan, Bizkaia Malta irla soilik luke aurretik (kilometro koadroko, 1.234.20 biztanle bizi dira han). Noski, kontuan hartu beharra dago Bizkaia estatuekin konparatzen ari garela, eta ez direla eremu bateragarriak; herrialde horietan ere ez da saturazio bera izango lurralde guztietan.

2. Dentsitatea. Europako Batasuna eta Euskal Herria, 2001 (5)



Iturria: www.datutalaia.net. Biztanleria zentsuak, Biztanleriaren datuak eta Izendegia (INE, INSEE eta Nazio Batuen Erakundea); Estatuen azalerarako, KLAUDIO HARLUXET FUNDAZIOA: *Munduko atlas*, 1997.

***Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako biztanleriaren datuak 1999koak dira. Europako datuak 2000. urtekoak dira. Europako Batasuneko datuak estatuka eskaini ditugu (ikusi www.datutalaia.net Metodologia Oharrak).


LABURBILDUZ

- Bizkaia, Euskal Herriko biztanleriaren herena biltzen duenez, pisu handia du Euskal Herriko adierazleak hartzen dituen balioetan.
- Bizkaia da Euskal Herriko herrialde populatuena, eta dentsitate handiena ere berak du (Euskal Herriko batez bestekoa erraz gainditzen du, gainera). Eta, era berean, Euskal Herriko dentsitatea Europako batez besteko baino handiagoa da.

2. Biztanleriaren adin osaketa. Bizkaiaren ageriko zahartzea

Biztanleriaren adin osaketaren azterketa, demografiaren arlo garrantzitsua da. Adin egituraren adierazpen grafikoa *adin piramidearen* bidez aurkeztu ohi da. Adin piramide bat ikuste hutsarekin gizarte batean gertatu diren prozesu anitz antzeman daitezke. Adin piramideak izen hori du itxura hori hartzen zuelako gazteek gehiengo zutenean (azpialde zabala) eta zaharrek, berriz, gutxiengo (gainalde estua). Baina egun, euskal gizartearen adin eta sexuaren arabera banaketak piramide bano erronbo luzatua dirudi. Ikus dezagun Bizkaiko 2001. urteko adin piraidea:

3. Adin piramide, herrialdeka. Euskal Herria, 2001




Iturria: www.datutalaia.net. Biztanleria zentsuak (INE).

Bizkaiko biztanleriaren kurbek ordezkapen ahuleko egoera adierazten dute; urtez urteko haurren proportzioak, gora behera txikiekin bada ere, gutxitzeko joera du; bestalde, adinekoen artean, perfila oso motelki hurbiltzen da ordenatuen ardatzera, bizi-itzaropena geroz eta handiagoa baita.

Izan ere, 65 edo urte gehiagoko biztanleen kopuruak (208.117 herritar, biztanleri osoaren %18,5) erraz gainditzen du 15 urte baino gutxiago dituztenena (128.457 lagun, bizkaitar guztien %11,4). Modu honetara, biztanleria osoarekiko adinekoek duten pisua areagotzen ari da.

Sexuen arteko orekari dagokionean, oro har, adin tarte gazteenetan handiagoa da gizonezkoen pisua eta zaharretan berriz, emakumezkoena. Hau da, neska baino mutil gehiago jaiotzen da, baina gizonezkoen hilkortasun handiagoa dela eta, adin nagusikoen artean, emakume gehiago topa daitezke. Adibide gisa, 85 urtetik gorakoaren artean 10 biztanletatik 7 emakumeak dira Bizkaian.

4. Adin piramidea. Euskal Herria, 2001




Iturria: www.datutalaia.net. Biztanleria zentsuak (INE, INSEE).

***Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira.

Orain arte ikusitakoak berdintasun handiak ditu Euskal Herriko biztanleriaren egiturarekin. Begi-bistakoa da Euskal Herriko eta Bizkaiko biztanleria piramideak dituzten perfilen antzekotasuna. Agerian geratzen da bietan ari dela biztanleriaren *zahartze* prozesua gertatzen, adin nagusikoek biztanleri osoarekiko duten geroz eta pisu handiagoa, alegia.

Zahartzearen fenomenoaren era sintetikoan ikusi ahal izateko *zahartze indizea* kalkulatu dugu. Horretarako, 60 urtetik gorakoen kopurua, 20 urte baino gutxiago dituztenen kopuruarekin zatitu dugu. Hona hemen Euskal Herriko herrialdeetan topatutakoa:

5. Zahartze indizea, herrialdeka. Euskal Herria, 2001




Iturria: www.datutalaia.net. Biztanleria zentsuak (INE, INSEE).

***Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira.

Bizkaiko biztanleriaren zahartze indizea Euskal Herriko batez bestekoa baino handiagoa da. Izan ere, Nafarroa Behera eta Zuberoak soilik dute Bizkaia baino zahartze indize altuagoa.

Euskal Herriko *zahartze* prozesuaren fenomenoaz azpimarratu egiten da Europar Batasuneko herrialdeetako zahartze indizeak ikusita: Euskal Herriko zahartze indizea Europako altuena baita. Eta ekar dezagun gogora, berriro ere, Bizkaiko biztanleria Euskal Herrikoa baino are *zaharragoa* dela.

6. Zahartze indizea.
Europako
Batasuna eta
Euskal Herria,
2001



Iturria:
www.datutalaia.net.
Biztanleria zentsuak,
Biztanleriaren Estatistikak
eta Biztanleriaren datuak
(INE, INSEE eta Nazio
Batuen Erakundea).
***Oharra:** Lapurdiko,
Nafarroa Behereko eta
Zuberoako biztanleriaren
datuak 1999koak dira.
Europako Batasuneko
herrialdeetako datuak 2000
urtekoak dira. * batez
markatutako estatuak,
2004. urtean Europako
Batasunari atxikitako
estatuak dira. 2000. urtean,
Europarekin kidetutako
estatuak ziren. Europako
Batasuneko datuak estatutika
eskaini ditugu (ikusi
www.datutalaia.net
Metodologia Oharrak).

LABURBILDUZ


- Bizkaian, Euskal Herri osoan bezalaxe, biztanleriaren *zahartzea* gertatzen ari da
- Euskal Herriko herrialdeen artean, Zuberoak eta Nafarroa Beherak soilik dute Bizkaia baino zahartze indize handiagoa
- Europako Batasunean ez dago Euskal Herria baino zahartze indize handiago duen nazio edo estaturik

B. IKASKETA MAILA

3. Biztanleriaren ikasketa maila. Proportzioan, bizkaitarrek dituzte, lapurtarrekin batera, hirugarren mailako ikasketa gehien

Atal honetan, ikasten ari ez diren 16 urtetik gorako biztanleriaz arituko gara. Bizkaian, horietako gehiengo handi batek, 10etik 7k, hain zuen, bigarren mailako ikasketak edo gehiago dituzte (617.126 lagun). Are gehiago, biztanleriaren %17,2k hirugarren mailako ikasketak ditu (153.503 pertsonak).


7. 16 urtetik gorako biztanleria, ikasten ari ez dena, ikasketa mailaren arabera. Bizkaia, 2001 (%)



Iturria: Gaindegia. Biztanleria zentsuak (INE, INSEE).
***Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira.

Bizkaian ikusitakoa Euskal Herri osora orokortu dezakegu. Dena den, proportzioak kasik berdinak izan arren, Bizkaian, 2. mailako eta, batez ere, goi mailako ikasketetan kopuru handixeagoak ageri dira, Lapurdirekin batera. Badirudi, bizkaitarrak eta lapurtarrak gainerako herrialdeetakoak baino apur bat ikasiagoak direla.

8. 16 urtetik gorako biztanleria, ikasten ari ez dena, ikasketa mailaren arabera. Euskal Herria, 2001 (%)



Iturria: Gaindegia. Biztanleria zentsuak (INE, INSEE).
***Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira.

Izan ere, Euskal Herrian 3. mailako ikasketak egin dituzten 16 urtetik gorako herritarretatik (337.548), %40,6 bizkaitarrak dira, 153.503 lagun, hain zuzen. Horretaz gain, goi mailako ikasketak jaso dituztenen proportzioa handiena duen bigarren herrialdea da Bizkaia (%17,2), Lapurdiren zertxobait azpitik (%17,8).

LABURBILDUZ


- 10 bizkaitarretatik 7k bigarren mailako ikasketak edo gehiago dituzte.
- Euskaldunen artean unibertsitate ikasketa gehien dituztenak bizkaitarrak dira, lapurtarrekin batera.

4. Biztanleak zein tamainatako etxeetan bizi diren. Bizkaiko biztanle gehienak lau kideko etxeetan bizi dira: % 31,3

Euskal Herriko biztanleak zein tamainako etxeetan bizi diren aztertu dugu, etxe horietan bizi diren kide kopuruaren arabera. Bizkaian, 1.115.096 lagun bizi dira etxebizitza nagusietan, eta horietatik gehienak lau lagunez osatutako etxeetan bizi dira: 348.568 lagun, hain zuzen, biztanleen %31,3.

Dena den, hori baino adierazgarriagoa da beste datu hau: etxebizitza nagusietan bizi diren Bizkaiko biztanleen laurdenak pertsona batek edo bik osatutako etxeetan bizi dira. Halaber, erdiak baino gehiago, 3 kide edo gutxiagoko etxeetan bizi dira. Beraz, kide gutxiko etxeak dira nagusi.

9. Biztanleen banaketa, zein tamainatako etxeetan bizi diren aintzat hartuta. Bizkaia, 2001 (%)




Iturria: Gaiendegia. Biztanleria zentsuak (INE, INSEE).
***Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira.

Euskal Herrian 2.872.767 biztanle bizi dira etxebizitza nagusietan, eta horietako gehienak lau pertsonatako etxeetan bizi dira, 876.116, hain zuzen (biztanleen %30,5). Baina, Bizkaian bezala, pertsona gehienak hiru kide edo gutxiago dituzten etxeetan bizi dira Euskal Herrian: 1.463.248 lagun, hain zuzen.

Bizkaiko eta Euskal Herriko egoerak nahiko antzekoak badira ere, herrialdez herrialde aztertuz gero, badira ezberdintasunak batetik bestera. Izan ere, Bizkaian, erdiak kide gutxiko etxeetan bizi badira ere (3 kide edo gutxiagokoak), Zuberoan eta Lapurdin biztanle gehienak neurri are txikiagoko etxeetan bizi dira: biztanleen %10 baino gehiago bakarrik bizi dira, herenak baino gehiago bi kideko etxeetan, eta Lapurdin, 10 biztanletatik 6 hiru kide baino gutxiagoko etxeetan bizi dira. Are gehiago, Lapurdi da herrialde bakarra non lau lagunez osatutako etxeak gehiengo ez diren (2 kidez osatuak dira gehienak).

Beste muturrean Nafarroa Beherea eta Nafarroa Garaia ditugu; bi herrialde horietan bizi dira biztanle gehien 6 pertsona baino gehiagoko etxeetan: %12,0 Nafarroa Beherean eta %10,2, Nafarroa Garaian.

10. Biztanleen banaketa bizi diren etxe tamainaren arabera, herrialdeka. Euskal Herria, 2001 (%)




Iturria: Gaindegia. Biztanleria zentsuak (INE, INSEE).
***Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira.

Europako Batasunari erreparatzen badiogu, ezberdintasunak antzematen ditugu estatutik estatura; iparraldeko herrialdeetako biztanleak, oro har, kide gutxiko etxeetan bizi dira. Horren adierazgarri dira Finlandiako, Alemaniako eta Danimarkako datuak: biztanleen erdiak inguru kide bat edo biko etxeetan bizi dira. Hegoaldeko zein ekialdeko estatuetan, beriz, neurri txikiko etxeetan bizi direnak gutxiago dira; esaterako, Espainiako Estatuko, Poloniako eta Zipreko biztanleen laurdenak edo gutxiago bizi dira kide bat edo biko etxeetan.

11. Biztanleen banaketa, zein tamainatako etxeetan bizi diren aintzat hartuta. Europa eta Euskal Herria, 2001 (%)

Iturria: Gaindegia. Biztanleria zentsuak eta Biztanleriaren datuak (INE, INSEE eta EUROSTAT).
***Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako biztanleriaren datuak 1999koak dira.



LABURBILDUZ


- Bizkaian, lau lagunek osatutako etxeetan bizi dira biztanle gehienak; dena den, biztanleen laurdenak bi kide edo gutxiagoko etxeetan bizi dira, eta erdiak hiru kide edo gutxiagoko etxeetan.
- Herrialdeka, Lapurdik eta Zuberoak dituzte kide gutxiko etxebizitza gehien; Nafarroa Garaia eta Nafarroa Beherea dira 6 kide baino gehiagoko etxeetan biztanle gehien dituzten herrialdeak.
- Europako iparraldeko herrialdeetan, besteetan baino biztanle gehiago bizi dira kide gutxiko etxeetan; Europako hegoaldean eta ekialdean joera bestelakoa da. Euskal Herria gertuago dago azken horien eredutik.

5. Familia egitura. Bizkaiko 10 familietatik 4 familia posnuklearrak dira

Familia motak

Egun Euskal Herrian dauden 800.206 familietatik 316.180 (%39,5) Bizkaikoak dira. Familia horietatik laurdenak baino gehiagok, %26,3k, hain zuzen, ez dute haurrik. Beste %15,4 seme-alabekin bizi diren guraso bakarreko familiak dira, eta gainerakoak, 10 familietatik ia 6, haurrak dituzten bikoteek osatzen dituzte.

12. Familia motak. Bizkaia, 2001 (%)




Iturria: Gai degia. Biztanleria zentsuak (INE, INSEE).
***Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira.

Bizkaiko familia mota bakoitzaren proportzioa Hego Euskal Herriko gainerako herrialdeetan aurkitu dezakegunaren oso antzekoa da, eta Euskal Herriko batez bestekotik oso gertu dago. Azpimarragarria da, ordea, Ipar Euskal Herrian egoera oso bestelakoa dela: haurrik gabeko bikoteen kopurua bikote guztiekiko ia erdira iristen da.


13. Familia motak, herrialdeka. Euskal Herria, 2001 (%)

Iturria: Gai degia. Biztanleria zentsuak (INE, INSEE).
***Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira.



Europako familia egiturekin alderatuz gero, haurrik ez duten euskal familien proportzioa (%28,1) gainerako estatu eta nazioetako gehientsuenetakoa baino txikiagoa da. Izan ere, Europako Batasunean haurrik ez duten bikoteen batez bestekoa %37,5era iristen da. Portzentaje horretan, honako herrialde hauek soilik daude Euskal Herriaren atzetik: Espainiako Estatua, Irlanda, Letonia, Polonia, Eslovenia eta Eslovakia.

14. Familia motak. Euskal Herria eta Europako Batasuna, 2001 (%)



Iturria: Gaindegia. Biztanleria zentsuak eta Biztanleriaren datuak (INE, INSEE eta EUROSTAT).

***Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako biztanleriaren datuak 1999koak dira.


Guraso bakarreko familiak

Hurrekin bizi diren guraso bakarreko familiak (aita edo ama bakarrik dutenak), Bizkaiko familia guztien %15,4 dira. Familia egitura horrek proportzioa ia berbera du euskal herrialde guztietan, eta Bizkaia, sarritan gertatu ohi den bezala, bat egiten du Euskal Herriko batez bestekoarekin (%15,4).

Guraso bakarreko familien artean gehientsuenak emakumearen ardurapean daude. Bizkaian 10 familietatik 8k baino gehixeagok dute emakumea buru. Proportzio hori oso antzekoa da Euskal Herriko herrialde guztietan, Bizkaian portzentajea handixeagoa bada ere.

15. Guraso bakarrek
famiak, famiako
buruaren sexuaren
arabera, herrialdeka.
Euskal Herria, 2001
(%)


Iturria: Gaindegia. Biztanleria zentsuak (INE, INSEE).
***Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira.



Europako Batasuneko estatuekin alderatuta, proportzioan, Euskal Herriak ditu gizon gehien guraso bakarrek famien buru, Espainiako Estatuaren atzetik, . Dena den, aldeak ere ez dira handiak, eta garbi dago, European zein Euskal Herrian, familia mota horietako burua emakumea izan ohi dela. Estatu guztietan, gorabeherak gorabehera, emakumea da buru guraso bakarrek famien %80-90etan.

16. Guraso bakarrek familiak, familiako buruaren sexuaren arabera. Euskal Herria eta Europako Batasuna, 2001 (%)

Iturria: Gaindegia. Biztanleria zentsuak eta Biztanleriaren datuak (INE, INSEE eta EUROSTAT).
***Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako biztanleriaren datuak 1999koak dira.




Familia nuklear eta posnuklearrak

Bizkaian, Euskal Herrian bezala, familia nuklear tradizionala ageri da maizenik; Bizkaiko familien %58,3 haurrak dituen bikoteak dira. Eredu posnuklearrek ere badute bere lekua (kasu honetan, haurrik gabeko egiturak zein guraso bakarrek); Bizkaiko familien %41,7 mota horretakoak dira.

Euskal Herriko herrialdeak aztertzen baditugu, berriz, aldeak nabarmenak dira Hego Euskal Herriko 4 herrialdeen eta Ipar Euskal Herriko 3 herrialdeen artean. Hego Euskal Herriko herrialdeetan, 10 familiatatik ia 6 familia nuklear tradizionalak dira, eta Ipar Euskal Herriko herrialdeetan, aldiz, 10 familiatatik 4 inguru.


17. Familia nuklearrak eta posnuklearrak, herrialdeka. Euskal Herria, 2001 (%)



Iturria: Gai degia. Biztanleria zentsuak (INE, INSEE).
***Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira.

Europar ere bi familia eredu horien arteko oreka aldatu egiten da herrialdetik herrialdera: hegoaldeko eta ekialdeko herrietan ohikoagoa da familia nuklearra izatea nagusi familia egituretan; aldiz, iparraldeko herrialdeetan, oro har, nagusi dira eredu posnuklearrak. Dena den, grafikoan ikus daitezkeen moduan, herrialde gehienetan familia mota bakoitza %50en inguruan dabil.

18. Familia nuklearrak eta posnuklearrak, Euskal Herria eta Europako Batasuna, 2001 (%)



Iturria: Gaindegia. Biztanleria zentsuak eta Biztanleriaren datuak (INE, INSEE eta EUROSTAT).
***Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako biztanleriaren datuak 1999koak dira.

LABURBILDUZ


- Bizkaiko familia gehienak haurrak dituzten bikoteak dira.
- Bizkaiko familien %15,4 guraso bakarreko familiak dira, eta horietako % 82,6, emakumeak gidatuak.
- Euskal Herriko guraso bakarreko familien %19k gizona dute buru. Batez besteko hori Europako bigarren handiena da.
- Bizkaiko 10 familiatatik 4 familia posnuklearrak dira (haurrik gabeko bikoteak eta guraso bakarrekoak).

D. SEKTORE EKONOMIKOAK

6. Enpresak. Bizkaiko enpresa egituraren %89,1 5 langile baino gutxiagoko enpresek osatzen dute

Euskal Herrian dauden 210.367 enpresetatik, 79.389 Bizkaian daude; herenak baino gehiago (%37,7). Langile kopuruari begiratuta, oro har, Bizkaiko enpresak neurri txikikoak dira: soldatapeko langilerik ez duten enpresak dira erdiak, eta 5 langile baino gutxiago dituzten enpresak, 10etik ia 4. Beraz, Bizkaiko enpresa-egituraren %89,1 5 langile baino gutxiagoko enpresek osatzen dute; 10 enpresetatik ia 9k 5 langile baino gutxiago dituzte, alegia.


19. Enpresak, langile kopuruaren arabera. Bizkaia 2004 (%)



Iturria: Gaindegia. Enpresa eta Establezimenduen zentsua (SIRENE eta DIRCE).

Datuak herrialdekako aztertzen baditugu, ikusiko dugu herrialde guztietan antzeko egoera ageri dela. Euskal Herriko enpresa-egitura langile gutxiko enpresek osatzen dute: 10 enpresetatik 9k bost langile baino gutxiago dituzte.

20. Enpresak, langile kopuruaren arabera, herrialdeka. Euskal Herria, 2004 (%)



Iturria: Gaindegia. Enpresa eta Establezimenduen zentsua (SIRENE eta DIRCE).

LABURBILDUZ


- Bizkaiko —eta Euskal Herriko— 10 enpresatik 9k bost langile baino gutxiago dituzte.

7. Biztanleria enplegatua. Bizkaian 10 okupaturatik 6k baino gehiagok zerbitzuen sektorean dihardute

2001eko erroldako datuen arabera, Euskal Herriko biztanleria okupatua milioi bat lagunek baino gehiagok osatzen dute (1.213.361). Ia 750.000 lagun zerbitzuetan ari dira, 430.000 inguru industrian, eta 36.000 inguru nekazaritzan. Beraz, bost biztanle okupaturatik hiruk (%61,6) zerbitzuetan dihardute; nekazaritzan, berriz, hogeita hamabost okupaturatik bat besterik ez da ari (%3,0), eta gainerakoak, ia bost okupaturatik bi (%35,4), industrian ari dira.

Bizkaian dago Euskal Herriko biztanleria enplegatuaren %36,8. Bizkaitar okupaturatik gehienak hirugarren sektorean ari dira lanean (%65,3), zerbitzuetan, hain zuzen; eta gutxien, berriz, nekazaritzan, lehen sektorean (%1,7). Bigarren sektoreak, industria eta eraikuntza arloak, Bizkaiko biztanleria okupatu guztiaren herena bereganatzen du (%33), Euskal Herriko batez bestekoa baino zertxobait gutxiago.

21. Biztanleria enplegatua, sektorearen arabera. Bizkaia, 2001 (%)



Iturria: www.datutalaia.net. Biztanleriaren zentsuak eta Biztanleria Estatistikak (INE eta INSEE).

***Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira.


Industriari dagokionez, jakina da Bizkaian birmoldaketa prozesu gogorra pairatu zuela; gaur egun, lanean diharduten guztien %33,0 enplegatuak dira industriak. Dena den, Hego Euskal Herriko herrialdeetako proportzio txikiena da hori; Bizkaian baino ehuneko handiagoan ari baitira industrian gipuzkoarrak (%39,8), arabarrak (%39,0) eta Nafarroa Garaiko herritarrak (%38,3). Lau herrialde horietan, beraz, industriak pisu handia du, Europako estatu guztietan baino dezente handiagoa.

Zerbitzuen sektorean, berriz, Lapurdik ditu langile gehien, eraltiboki betiere: herrialde horretan, enplegatuaren %76,7k dihardute zerbitzuetan. Lapurdiren atzetik, Bizkaia du bigarren portzentaje handiena: enplegatuaren % 65,3k egiten dute lan zerbitzuetan Bizkaian.

Bizkaia da proportzioan nekazaritzako sektorean enplegatu gutxien biltzen dituen herrialdea; enplegatuaren %1,7 besterik ez. Beste muturrean, herrialde *nekazari*enak

Zuberoa eta Nafarroa Beherea ditugu; hurrenez hurren, herrialde horietako enplegatuen %21,5 eta %26,3 ari dira lanean lehen sektorean.

22. Biztanleria enplegatua, sektorearen arabera, herrialdeka. Euskal Herria, 2001 (%)




Iturria: www.datutalaia.net. Biztanleriaren zentsuak eta Biztanleria Estatistikak (INE eta INSEE).
***Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira.

2001. urtean Europako Batasuna osatzen zuten hamabost herrialdeak kontuan hartuta, eta industrian ari diren langileen proportzioari dagokionez, Euskal Herria da Europako Batasuneko herrialde industrialena. Euskal industrian, biztanle okupatuak %35,4 ari dira lanean, eta portzentaje horrek sei puntutan gaintzen du Europako Batasuneko batez bestekoa (%29,0).

Egun, Europako Batasunean nekazaritza indarra galtzen ari da; biztanle okupatuak %10 baino gehiago nekazaritzan ari diren herrialdeak bi baino ez dira: Grezia (%17,0) eta Portugal (%12,5). Ildo beretik, beste bostek baino ez dute gaintzen Europako Batasuneko batez bestekoa (%4,3): Irlandak, Espainiako Estatuak, Finlandiak, Austriak eta Italiak. Euskal Herriak batez bestekorik txikienetakoa du (%3,0). Bost herrialdek baino ez dituzte Euskal Herriak baino langile gutxiago nekazaritzan.

Zerbitzuen sektorean ari diren euskal langileen portzentajea ere (%61,6) egungo Europako Batasuneko txikienetakoa da. Portugalgoa (%52,6) eta Greziakoa (%60,5) soilik gaintzen ditu Euskal Herrikoak, baina batez besteko handienak dituzten herrialdeetatik oso urrun gelditzen da: Luxenburgo (%76,8) eta Herbehereak (%75,2).

23. Biztanleria enplegatua, sektorearen arabera. Euskal Herria eta Europako Batasuna, 2001 (%)



Iturria: www.datutalaia.net. Biztanleria zentsuak, Biztanleriaren Estatistikak eta Biztanleriaren datuak (INE, INSEE eta EUROSTAT).

***Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako biztanleriaren datuak 1999koak dira. Europako Batasuneko herrialdeetako datuak 2000. urtekoak dira; beraz, 2004. urtean Europako Batasunera atxikitako estatuen daturik ez du biltzen. Europako Batasuneko datuak estatuka eskaini ditugu (ikusi www.datutalaia.net Metodologia Oharrak).

LABURBILDUZ

- Bizkaiko biztanle gehienek zerbitzuen sektorean egiten dute lan: enplegatuen %65,3k
- Euskal Herriko herrialdeetan, Bizkaian ari dira langile gutxien nekazaritzan: enplegatuen %1,7
